

CANVAS EREDUA: READEASE
<https://readease.cms.webnode.es>



AURKIBIDEA:

1. IDEIA _____	2.or
2.BALIOA _____	3.or
3. SEGMENTAZIOA _____	4.or
4. ELKARTEAK _____	5.or
5. IRABAZI ITURRIAK _____	6.or
6.KANALAK _____	7.or
7.HARREMANAK _____	8.or
8.BALIABIDEAK _____	9.or
9.JARDUERAK _____	10.or
10.KOSTUAK _____	11.or

3. MERKATUAREN SEGMENTAZIOA.




Merkatuaren segmentazioa, produktua eskainiko den bezero taldea da. Taldearen arabera, negozioa desberdina da eta beharrak zehaztu egiten dira.

Bezero taldeari dagokionez (argitaletxeak modu zuzenean eta ikasleak zeharka), merkatu nitxoa izango litzateke, bezero bakoitzaren beharretara egokitzen delako gure zerbitzua.

Alde batetik, behar bereziak dituzten ikasleak beraien eduki pertsonalizatua izango dutelako, eta beste alde batetik, argitaletxe bakoitzaren baldintza, eskari edota adostasunen arabera produktzioa. Adibidez, argitaletxe batek soilik ikasgai batekin saldu nahi badu audioa, horretarako egingo genukeen lan.

Hemen, balorezko proposamenak, banaka kanalak eta bezeroarekiko harremanak hartzailearen neurria diseinatuak egon behar dira. Esate baterako, azalpen bereziak, zehaztuagoak, adibide gehiagorekin...



Gainera, aurkibide bat izango dute audioek, eta horrela unean, beharrezkoak izango diren edukietara jo ahalko dute modu azkar eta errazean.



Aurretik aipaturiko pertsonalizazio atalean esan bezala, harreman zuzenak eta berezituak izango dituzte, elkarrizketak izateko aukera ematen duen “chat” baten bidez. Horrela, bezeroaren desadostasunak, faltan botatzen duena, berrikuntzak, hobekuntzak, esker onak... guztiak azaltzeko eta idazteko aukera dute.

LABURBILDUZ:

- Merkatu **nitxoa** da bai ikasle zein argitaletxeen **beharretara moldatzen** den zerbitzua delako.